

Abenduaren 1ean Getxolanek Getxo Meeting berrien lehenengo edizioa hartu zuen, hau da, Getxoko enpresen eta ekintzaileen komunitaterako aldizkako lehenengo topaketa.

Bilera horiek hamabost egunean behin egingo dira, eta bi orduko iraupena izango dute. Topaketa horien bitartez, harremanak sortu nahi dira giro lasai eta produktiboan. Helburua, hain zuzen, kezka komunak partekatzea eta elkarri konponbideak iradokitzea da.

Lehenengo bilerak bi zati izan zituen: alde batetik, parte hartzeko dinamikak egin ziren bertaratu ziren profesionalak harremanetan jartzeko, harreman baliotsuak hasteko beharrezko konfiantza-giroa sortze aldera. Beste alde batetik, bigaren zatian, nagusiki, ekintzaileen / enpresen komunitatearen beharrak antzematen saiatu ziren, etorkizunean egingo diren Getxo Meetingetan landuko diren gaiak interesdunen hausnarketatik sor daitezzen.

Bertaratutakoek ondorengo kontuak garrantzitsutzat jo zituzten – antzeko gaien arabera antolatu dira–, eta ideia horiek hurrengo bileretako elkarriketa- eta inspirazio-ardatz bihur daitezke.

### ***Lehenengo Getxo Meetingean antzeman diren beharrak***

#### **Estrategia**

- *Misioa, ikuspegia eta balioak.*
- *Enpresaren hazkundera kudeatzea / zabaltzea eta dibertsifikatzea.*

#### **Enpresaria, jarrera eta motibazioa**

- *Nork bere marka pertsonala sortzea.*
- *Adimen emozionala, trebetasun sozialak / ekiteko erabakiak egiteko laguntza.*
- *Ekintzailearen bakardadea / nork bere burua zaintzea ekiteko bidean.*

#### **Zerbitzuak/ produktua**

- *Produktu berri bat saltzen hastea: xede- publikoa aldatzeko bideragarritasuna nola ikusi.*
- *Bezeroak prestatzea: produktu berritzaile baten pedagogia egitea.*
- *Produktua berrasmatezea: merkatura egokitzea / neurrira egindako produktua estandarizatzea.*

#### **Komunikazioa**

- *Pertsonak kudeatzea.*
- *Enpresarako sormenezko ideiak / ideia pertsonalizatuak ematea, enpresen arteko eskuzabaltasuna / pertsonekin komunikatzen diren pertsonak, zubiak eraikitzea.*
- *Bezeroengan nola hurbildu publikitate egiteko: hesiak haustea.*
- *Getxo Meetingetara datozen pertsonen jarraipena.*
- *Testuingurua: merkaturia, egungo egoera ezagutzea.*

### **Aliantzak**

- *Konpromisoa / nola aritu lankidetzan, lankidetzarako balizko metodoak eta moduak.*
- *Elkarren artean oso desberdinak diren enpresen arteko sinergiak / talde bat sortzea.*

### **Bezeroak/ saltzaileak**

- *Tokiko, made in Getxo bezeroak areagotzea / balizko bezeroarekiko irismena, harremana, hau da, elkar ezagutzea.*
- *Esperientziak partekatzea balizko merkatuak aztertzeko.*
- *Bezero toxikoak kudeatzea.*
- *Saldu ondoren bezeroen jarraipena egitea eta horiek zaintzea / fidelizazioa.*

### **Finantzazioa / burokrazia**

- *Inbertsioa berreskuratzea: harremanak, dirua, irudia...*
- *Produktuaren / zerbitzuaren balioa azpimarratzea.*
- *Administrazio-kudeaketa, artxiboak, CRM komertziala, informazioa kudeatzeko trukoak.*

Hurrengo bilera abenduaren 15ean izango da. 2017an, berriz, urtarrilaren 12an eta 26an egingo dira bilerak, eta hurrengo ostegunetan, bi ostegunetatik behin. 12:00ak eta 14:00ak bitartean izango dira Getxo Elkartegian (Ogoño 1, 48930 Areeta-Getxo).

Topaketak doakoak dira, baina parte hartu ahal izateko beharrezkoa da alde zurretik izena ematea Getxolanen. Horietako bakoitzerako eman beharko da izena topaketak independenteak baitira. Informazio gehiago ezagutu edo izena eman nahi baduzu, 94 466 01 40 telefono-zenbakira dei dezakezu edo [getxolan@getxo.eus](mailto:getxolan@getxo.eus) helbide elektronikora idatzi.